

Damborenea telefonoan

Deia, 1983-07-02.

- Nor da? ... Felipe!! ...
- Ez, ez naiz.
- Nor zaitut, orduan?, ez zara Arzalluz izango!
- Zer diozu? Zer zabiltz nazionalistekin izkutuko tratuetan! Entzun pregoietako damborroaren astakeriak irtetzen zaizkizu sarri...
- A! Gerra!!
- Ez naiz Gerra ere; edozer esaten ari zara PNV jotzearen. Nola diozu Euskal Herria politika arazoetan parbularioa dela? Hor sozialistarik ere bada oraindik, etorkinak ere ugari; zergatik sartzen ditugu nazionalistekin saski berean! Esan nizun behin, abertzaleak direnak eta ez direnak berezi eta zatitzea dela gure taktika nagusia...
- A!, Barrio Nuevo! Esan dut hori ere, abertzaleak arrazistak direla...
- Ez naiz Barrio Nuevo, baina ondo da, non irten da hori?
- Non behar zen?
- "El Correo Español" edo "Gaceta del Norte"...
- Baina Fraga da bi horietan nagusi!
- Baliteke, baina horiek dira etorkinak eta sozialistak irakurtzen dituztenak; eta nor duzu gaur aliatu hoberik? Zatiketa bidean geuk Fraga eraiki behar dugu geure alternatiba bakar bezala; eta Fraga-mamu horren ihesi denak sozialistak!
- Eta bidez militarrei ohea egin... Adi zazu, ez zara Enrique?
- Ezta!; sudupekoa duzu handia, bibote eta beste, baina usanketarako behar dena falta zaizu... adi zazu, Damborenea, zuk ez duzu galdera besterik egiten; eman, eman erantzunak!
- Baneki... beno, Arabako UGTko autonomistez... gure langileria eta ezkerria da hori!
- Langileria eta ezkerria, bai baina ez da langileria eta ezkerria izatea nahikoa; espainolista izan behar du Euskal Herrian, bestetan bezala!
- Fraga berak ere baditu horietakoak...
- Ezkerrak?
- Ez, espainolistak; eta, hara, horiek gorriak egitea errazagoa zaizu abertzaleak espainolizatzea baino!; Fragari kendu behar batzu! Del Burgo ere baditu horietakoak... Eta *autonomia-denentzat* delakoaren sistema horrekin, badira orain 17!, itoko ditugu denak uholde horretan!
- Simplea zara, danborra... Baina behar zaitugu, segi danborra jotzen.